

Enpresaren ikuspegia eta Mediku zein Dietisten ikuspegiak.

Bai medikuek baita dietistek ere populazioaren elikadura osasuntsua sustatu behar dutela ustea zentzuzkoena da, baina hau ez da beti horrela.

Adibide gisa dugu AEPren (Asociación Española de Pediatría) jarduna, *Dinosaurus* galletetan haien logoa agertzea ahalbidetzen baitute, noski, diruaren truke. *Dinosaurus* galletak, %21eko azukre kantitatea dute; galletak gainera, beste gozo prozesatuekin batera, Espainan dagoen dieta hipergluzemikoen arrazoi nagusietako bat da, bertatik eskuratzen baititugu azukre gehienak (ACEOSANen arabera). Etikari estuki jarraitzen dioten erakundeak ados daude azukre kantitatea murriztu beharra dagoela populazioaren dietan eta horrela jakinarazi zuten bai OMS baita AECOSANek.

Horrelako praktikak legeditik at egongo direla pentsa dezakegu, baina, Europako legislazioan ez dago gai inguruko legerik eta Espainiako legedira joz gero, osasunarekin erlazionatutako erakundeek produktuei bermea eman diezaiokete betiere jakien publizitate zuzena edo ez-zuzena egiteko eta lortutako dirua osasuna hobetzeko praktiketan inbertitzen badute, irabazi asmorik egiten bada, alegia. Beraz alde honetatik, AEPk legea betetzen du. Baina beste irakurketa bat egitea dago, lehia desleialaren legea (3/1991) hartuz gero, logo honen agerpena konfusioa sorrarazi dezake eta hori bai legeriatik at egongo litzatekeela.

Hau ikusita, OMC-aren Batzar Nagusiak, Deontologia Batzorde Nagusiak egindako aitorpen bat onartu du, non elikagai ez-osasuntsuen salmentarako erakunde eta talde zientifikoek abalak kritikatuak diren, hau aurrerapauso handi bat izan da eta oso txalotua. Izan ere, deontologia aldetik, osasunean eragin txarra izan dezaketen produkten kontsumoa sustatzea, etikoki desegokia da. Jarduera hau, goian aipatutako adibidean nabaria da, osasunerako onak izango balira bezala saltzen baitira galleta batzuk, jendearen ezjakintasunaz aprobetxatuz.

Egoera honen aurrean dagoen iritzi zabaldua, erakunde zientifikoek etika eta arduraren falta da, baina zer daukagu esateko abal hauek erosten dituzten elikagai enpresei buruz? Hauek ere maila berean arazoaren erantzuleak dira eta neurriak hartu beharko lirateke.

AEP egoera korapilotsu hau azaltzeko zertan oinarritzen da? Bada, beraiek horrelako produktuei bermerik ematen ez dutela eta bere logoa bertan egoteak arrazoi bakarra duela, enpresa hori entitate kolaboratzailea dela jakinaraztea, abal batek, atzetik dirua dagoela esan nahiko luke, kolaborazio terminoarekin aldiz, irabazi-asmorik gabekoa dela esan nahiko du, beraz, legala. Baina horrekin pozik ez, beraien burua justifikatzen jarraitzen dute elikagai osasuntsuak edo ez osasuntsuak ez daudela baieztatuz baizik eta elikadura orekatu eta osasungarri bat edo ez. Are gehiago, AEPko Nutrizio Batzordeak egiaztatzen du, kasu honetan galletak osasungarriak direla betiere kantitate egokietan jaten badira elikadura

orekatu batekin jarraituz. Justifikazio gehigarri hauek pentsarazi dezakete beraien jardunarekin behar lasai ez daudela, agian.

Abalak eramatean, kontsumitzailea erostea bultzatzera eragiten du, kontsumitzailearen perspektiba galtzen baita, objetibotasuna. Hutsune legal bat aprobetxatzen dute, baina ez da etikoa.

Jasotako dirua, osasun arloan inbertitzen dutela diote. Bekak, ikerketa-lanak, hitzaldiak... sustatzeko, **berez, lortzen diren emaitzetan intereferentziarik gabe.**